

## MONDRAGON UNIBERTSITATEA - Ointxe final four-etan

2017/01/17

Aste buruan jokatu diren final four-etan, MONDRAGON UNIBERTSITATEA-Ointxe kadete neskek eta junior mutilak txapeldun izan dira.

Saski baloi partida onak ikusteko aukera egon da Iturripe eta Musakolan aste buruan eta zaletuek, partiduetaz gozatzeaz gain, taldeei babesa eman diete.

Goizez, neskek, 65-54ko markagailuarekin bukatu dute partidua Cafés Aitona Askatuak donostiarren aurka. Arratsaldean berriz, mutilek 64-53ko markagailuarekin bukatu dute Easo Elkar donostiarren aurka.

ZORIONAK guztioi!

